

TORMENTAS. 6 DE SEPTIEMBRE

A lo largo de la tarde del 6 de septiembre, debido a la inestabilidad atmosférica, se forman tormentas activas en el centro de Navarra y La Rioja. Éstas van uniéndose y desplazándose hacia el este y formando una amplia zona tormentosa al este de la CAPV, con chubascos fuertes y muy fuertes en Álava y en zonas del sureste de Gipuzkoa. En zonas localizadas van acompañados de granizo y de rachas de viento muy fuertes.

Las zonas más afectadas son las comarcas de Alto Oria, Alto Urola, Alto Deba, Encartaciones y zona este de la Llanada Alavesa, siendo los alrededores de la ciudad de Vitoria-Gasteiz uno de los puntos donde se registra la mayor intensidad en la precipitación y en la velocidad del viento. En esta ciudad se producen algunos incidentes, como caída de árboles, pequeños cortes de calles y carreteras y bajos inundados (ver figura 6.4).

En Zegama se recogieron 80 mm en apenas 5 horas, con una acumulación de 40,1 mm en 1 hora (ver figura 6.5). En Vitoria se registraron 20 mm en 1 hora, destacando la racha de viento de 100 km/h (ver figura 6.4).

La situación sinóptica se caracteriza por un embolsamiento de aire frío en los niveles altos al oeste de la Península Ibérica, con una línea cerrada de 5730 mgp y con una temperatura a esa altura de -14 °C. En niveles bajos, se aprecia una advección cálida del sureste, con temperaturas de más 15 °C a 850 hPa, indicando una inestabilidad térmica vertical acusada. A todo esto hay que añadir los movimientos dinámicos generados por la presencia de una depresión en los niveles medios y altos de la atmósfera (ver figura 6.1).

EKAITZAK. IRAILAREN 6A

Irailaren 6ko arratsaldean zehar, ezegonkortasun atmosferikoa zela eta, ekaitz biziak sortu ziren Nafarroa erdialdean eta Errioxan. Pixkanaka-pixkanaka, ekaitz hauek elkarren artean batzen eta ekialderantz mugitzen joan ziren. Honela, EAEaren ekialdean ekaitz-eskualde zabal bat eratu zen, zaparrada gogor eta oso gogorrekin Araban eta Gipuzkoa hego-ekialdean. Zenbait tokitan, ekaitz hauekin batera txingorra bota zuen eta baita haize-bolada oso gogorak neurtu ere.

Ekaitz hauen eragina bereziki Oria garaian, Urola garaian Deba garaian, Enkarterrietan eta Arabako Lautadaren ekialdean sentitu zen. Prezipitazio-intentsitate eta haize-abiadura handienetakoak Gasteiz inguruan neurtu ziren. Hiri honetan, gainera, hainbat gorabehera sortu zen hala nola zuhaitzen erorketa, ur-putzuak zenbait kale eta errepidetan eta urak hartutako lokalak (ikus 6.4 irudia).

Zegaman 80 mm jaso ziren ia bost ordutan, ordu betean 40,1 mm neurtu zirelarik (ikus 6.5 irudia). Gasteizen, ordu betean 20 mm jaso ziren eta nabarmentzekoa da bertan neurtutako 100 km/h-ko haize-bolada (ikus 6.4 irudia).

Iberiar Penintsularen mendebaldean geruza altuenetan zegoen aire hotzez osatutako poltsak baldintzatu zuen egoera sinoptikoa, 5730 mgp-ko lerro itxi batekin eta altuera horretan -14 °C-ko tenperaturarekin. Maila baxuetan, hego-ekialdeko adbekzio beroa nabaritu zen, 15 °C baino tenperatura altuagoekin 850 hPa-etan, honek guztiak ezegonkortasun termiko nabarmena ekarri zuen. Gainera, mugimendu dinamikoak eragiten zituen depresio bat ageri zen atmosferako maila ertain eta altuetan (ikus 6.1 irudia).




Figura 6.1. Presión al nivel del mar y frentes. 06/09/2004 a las 12 UTC.
6.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2004/09/06 12etan UTC.




Figura 6.2. Geopotencial e isotermas a 850 hPa. 06/09/2004 a las 12 UTC.
 6.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara. 2004/09/06 12etan UTC.




Figura 6.3. Geopotencial e isotermas a 500 hPa. 06/09/2004 a las 12 UTC.
 6.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-etara. 2004/09/06 12etan UTC.




Figura 6.4. Velocidad del viento y precipitación en Vitoria el 06/09/2004.
6.4 irudia. Haize-abiadura eta prezipitazioa Gasteizen, 2004/09/06an.




Figura 6.5. Velocidad del viento y precipitación en Zegama el 22/06/2004.
6.5 irudia. Haize-abiadura eta prezipitazioa Zegaman, 2004/06/22an.




Figura 6.6. Precipitación acumulada en 1 h el 06/09/2004.
6.6 irudia. Ordu betean pilatutako prezipitazioa, 2004/09/06an.




Figura 6.7. Precipitación acumulada en 24 h el 06/09/2004.
6.7 irudia. 24 ordutan pilatutako prezipitazioa, 2004/09/06an.